



BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU NAGUSIA

CELSO RODRÍGUEZ PADRÓN, BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU NAGUSIKO IDAZKARI NAGUSIA,

ZIURTATZEN DUT: BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU NAGUSIKO OSOKO BILKURAK, DATA EGUNEKO BERE BILERAN, EUROPAR BATASUNEAN, KONFISKAZIO EBAZPEN JUDIZIALEN BETEARAZPENERAKO DEN LEGEAREN AURREPROIEKTUARI BURUZKO ETA BOTERE JUDIZIALAREN UZTAILAK 1EKO 6/1985 LEGE ORGANIKOAREN AURREPROIEKTUARI BURUZKO ETA EUROPAR BATASUNEAN, KONFISKAZIO EBAZPEN JUDIZIALEN BETEARAZPENERAKO LEGEARI OSAGARRI ZAIONARI BURUZKO TXOSTENA ONARTU DUELA.

I.

AURREKARIAK

2008ko irailak 15 eguneko datarekin, *“Europar Batasunean, konfiskazio ebazpen judizialen betearazpenerako lege aurreproiektuaren eta Botere Judizialaren uztailak 1eko 6/1985 Lege Organikoaren aurreproiektuaren eta Europar Batasunea konfiskazio ebazpen judizialen betearazpenerako legeari osagarri zaionaren aurreproiektuaren”* testuak Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren (BJKN) Erregistroan sarrera izan zuen, hain zuzen ere organo honen bitartez jakinarazia izateko helburuarekin.

Ikerlan eta Txostenen Batzordeak 2008ko urriak 10 eguneko bere bileran, On Concepción Espejel Jorquera Andere Gorena Txostengile bezala izendatzea erabaki zuen, eta txosten hau onartu zuen, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren Osoko Bilkurara bere igorpena



BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU NAGUSIA

hitzartuz.

II

BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU NAGUSIAREN KONTSULTA FUNTZIOAREN GAINEAN HAUSNARKETA OROKORRAK

Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak BJKN duen kontsulta funtzioa lotura puntu bikoitz baten bitartez zehaztua dator: alde batetik, proiektatutako testu arauemailea konfiskazio ebazpen judizialen betearazpenerako prozeduraren arauketaz arduratzen da, hau, bere aldetik, Botere Judizialaren Lege Organikoaren 108.1 artikulua, e) eta f) letretran, barne hartzen dituen kasuekin lotzen delarik, BJKNari, arau prozesalak eta zigor mailako izaera duten funtsezko arauak ere lege aurreproiektuen gainean informazioa emateko; beste alde batetik, informatutako testuak – lehenengo Xedapen Gehigarria – BJKN honen esku dauden funtzioen jardueran eragina du, estatistika judizialaren esparruan eta BJLOko 461 artikuluekin bat etorriz, honek, bere aldetik, era berean duten kontsulta funtzioa dakartzaten epaitegi eta auzitegi gobernuko aspektuen gainean eragina duelarik.

Azkenean, kontuan hartu behar da proiektatutako arauak prozesuaren barruan funtsezkoak diren eskubideen babes judizialean eragina duela eta kasu edozein izanik ere, Botereen arteko leiala den elkarlankidetzaren instituzional baten esparruan, Esparru Erabaki bat den bezalako tresna juridiko komunitario baten barne antolamendura leku aldaketa egokia gamendatuko da, batzuetan, Organo honen bitartez proiektuaren hobekuntza helburu izango duten teknika arauemaile zorrotz batzuk erabiltzeko aukera posible izango delarik.



BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU NAGUSIA

III

PROIEKTATUTAKO ARAUAREN HELBURUA

Txostenean jasotzen den Lege Aurreproiektuak, konfiskazio ebazpenen elkarrenganako onarpen printzipioaren aplikazioari buruzkoa den 2006ko urriak 6ko Kontseiluko 2006/783/JAI Esparru Erabakiko edukiaren barne antolamendu espainiarreko tranposizio aginteari konplimendua ematen dio.

Zigor mailako ordena barruan elkarlankidetzak juridiko eta judizial gailan, EBk dituen iturri sistemaren barruan, - zein, iadanik ezaguna den bezala, Europar Batasunaren Ituneko (EBI) IV Tituluan barne hartzen den eta "hirugarren oinarria" deitzen den esparru horretan kokatzen da, "*zigor arloan elkarlankidetzak polizial eta judizialari buruzko xedapenak*" izenpea duena- Esparru Erabakiak Zuzenbide eratorriko tresnak izateagatik bereizten dira, hain zuzen ere eraginkortasun juridiko zuzenik ez dutenak, zeinen helburua Estatuko kide direnen legezko eta arauzko xedapenak gerturatzea da, hauei, emaitz batekiko betebeharra inposatuz, hain zuzen ere beraien edukia bakoitza berari dagokion antolamenduan eta berez amankomuna den arauak inposatzen duen epealdi irmo baten barruan barne sartzea edo onartzean datzan betebeharrak (34.2, b) artikulua EBI).

2006/783/JAI EEak ebazpen judizialen elkarrenganako onarpen printzipioa gauzatzen du, hain zuzen ere Tamperen, 1999ko urriak 15 eta 16 egunetan eta izaera bereziaz ospatutako Europar Kontseiluan adierazia izan zen printzipioa, eta ordutik aurrera Batasun esparru barruan, arlo zibile eta zigor mailako gailen elkarlankidetzak judizialaren aurrerabiderako eta Amsterdameko Itunaren barruan adierazitako postulatuen arabera, askatasun, segurtasun eta justizia amankomun



BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU NAGUSIA

esparru baten sorketarako ardatz bezala irudikatua datorrena.

Elkarrenganako onarpen printzipioa EBko kide diren Estatuaren antolamenduaren baliotasunean elkarrekiko konfiantza baten existentzian bideratzen da, hau, hain zuzen ere, europar antolamendu publiko baten finkapenean eta oinarrizko eskubideak ziurtatzeari dagokion gaiaren gainean, hala nola Giza Eskubideen Europako Auzitegiko doktrinatik datorren eta amankomuna den ondare bezala, eta Batasunaren esparru barruan hedatutako ahaleginetan hain zuzen ere zigor arloko bere Estatuaren legeria hurbiltzeko asmoarekin, bai funtsezkoa dena baita prozesala dena ere, hau izan ere bere eduki arauemaileak elkarrenganako bateragarriak egiteko helburuz. Elkarrenganako onarpenak behin kide den Estatu batean eta ofizialak diren gaitasunen jardutean epaile batek hartutako ebazpen bat, hau naziotik kanpora ere eragina duen bitartean, kide diren gainontzeko Estatuetan ere automatikoki onartua izango dela adierazten du, eta era berean han eragin berdina izango du edo, behintzat, antzekoak diren eraginak – Batzordearen Komunikazioa, 2000 urteko uztailak 26an, Bruselaren argitaratua, COM (2000) 495-.

Ebazpen judizial elkarrenganako onarpen sistemaren aurrekariaren adierazpen izan dira hain zuzen ere Kontseiluaren 2002ko ekainak 13ko 2002/584/JAI EEa, atxiloketa europar ordenari eta kide diren Estatuaren artean entrega prozedurei buruzkoa, izan ere zuzenbide espainiarrean martxoak 14ko 3/2003 Legearen bitartez, martxoak 14ko 2/2003 LOaren bitartez, eta EB barruan ondarraren aurreneurritzko enbargo ebazpenei buruzkoa den eta frogari ziurtapenari buruzkoa den 2003ko uztailak 22ko Kontseiluaren 2003/577/JAI EEaren bitartez barne sartu zena, hain zuzen ere ekainak 5eko 18/2006 Legearen bitartez zuzenbide espainiarrean barne sartu zena, eta ekainak 5eko 5/2006 LOa. Elkarrenganako onarpen



BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU NAGUSIA

sisteman inspirazioa hartu duten eta amankomunak diren beste tresna batzuk aipatzea dago, hala nola otsailak 24ko 2005/212/JAI EEa, berau delituarekin erlazionatzen diren produktu, tresna eta ondasunen konfiskazioari buruzkoa, Kontseiluaren EE Proposamenak, hauek zigor arlo barruko prozedurei zuzenduak dauden objektu, dokumentu eta datuak biltzeko frogen lorpeneko europar erreguari buruzkoak – azaroak 14ko 688 azkena (2003) COM- diren bezala eta EBko kide diren Estatuaren artean zigortzaileak diren ebazpenak kontuan hartzeari buruzkoak, hau, zigor mailako prozesu berri bat hasteko zergatiaz – martxoak 17ko 91 azkena (2005) COM-, *en bis in idem* printzipioaren aplikazioari buruzko EE bat barne hartzeko helburuz Errepublikaren Eleniarraren Ekimena – 2003ko apirilak 26ko AO C/100-, eta EBko kide diren Estatuaren artean, zigor konplimendu eta zigortuak izan diren pertsonen lekualdaketa europar ordenari buruzko EE baten onarpenari begira, Austria, Finlandia eta Sueziako Ekimena – 2005eko ekainak 26ko AO C/150-.

IV

AURREPROIEKTUARI BURUZKO HAUSNARKETAK

1. SISTEMATIKA

Txostenean jasotzen den Lege Aurreproiektuak zioen azalpen bat du, hiru kapitulu ezberdinetan banatzen den testu artikulatu bat, xedapen gehigarri bat, iragankorra den beste xedapen bat eta hiru azken xedapen ere baditu. Konfiskazio ebazpenen elkarrenganako onarpen printzipioaren aplikaziorako ziurtagiri edo formularioa ere barne hartzen duen eranskin batek ere osatzen du, hala nola BJLOaren aldaketa aurreproiektu batek eta zigor mailako arau hausteetako batzordearen bitartezko konfiskazio ebazpen judizialen betearazpenerako legeari Europar Batasunean osagai zaiona.



BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU NAGUSIA

Lehenengo kapituluak xedapen orokorrak barne hartzen ditu, hain zuzen ere legearen helburuari dagozkionak eta kide diren Estaturen arteko hitzarmenen bitartez ezartzen den erregimenaren hobekuntza aukerari dagozkionak; bai ebazpenak eman ahal izateko, baita hauek betearazi ahal izateko Espainia barruan eskumena izango duten agintaritzak zehazten dira eta konfiskazio kontzeptua zehazten da baita, hain zuzen ere bai zigor Kodearekin bat eginez, baita 2005/212/JAI EEarekin bat etorriz ere.

Bigarren kapituluak, *“Espainiar agintari judizialen bitartez, konfiskazio ebazpen baten igorpena Europar Batasuneko kide den beste edozein Estatu batean bere betearazpenerako”* izenpea duena, espainiar agintari judizialen bitartez, Europar Batasuneko kide den este edozein Estatu batean bere betearazpenerako konfiskazio ebazpen baten igorpena arautzen du; dokumentazioa eta igorpen modua hain zuzen ere eta hau, eranskinean jasotzen diren ziurtagiriaren erabileraren bitartez eta igorpen batetik ondorioztatzen diren eraginen bitartez, bereziki konfiskazio eskaera Estatu ezberdinetara bihaltzen denean. Kapitulu berdinak, honek duen 10. artikuluan, konfiskazioaren aldaketa alde aurre ikusten du, hain zuzen ere diru kopuru baten ordain betearazpenean, hau ari garen ondarearen balioarekiko baliokide izanik eta beti ere betearazpen Estatuko legeriak onartzen duen einean; betearazpenaren bukaera, agintaritza judizial espainiarrak, eskuduntza duen agintaritzari betearazpen Estatuan konfiskazioa eraginik gabe utzi dezakeen edozein neurriren hartzearen gainean informazioa emateko betebeharra izango duelarik, hala nola, zigor mailako agintaritza judizial espainiarrari konfiskazio ebazpenaren berrikusketan aurkeztu ahal izango zaizkion errekurtsoen ematea.



BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU NAGUSIA

Hirugarren kapituluak, “*Espainia barruan Europar Batasuneko beste kide baten agintaritza judizialaren eskutik igorritako konfiskazio ebazpen baten betearazpena*” izenpea izanik, 13. artikuluan, arau hauste maila ezberdinentzat tipifikazio bikoitzaren kontrola ezabatze printzipioa abiapuntu bezala hartzen du, nahiz eta baloratutako kasuetatik kanpo, betearazpena konfiskazio ordena zehazten duen egitatea, Zuzenbide espainiarrean zigor mailako arau haustea osatzen duen egitatea izatea ere baldintzapean jartzen duen; konfiskazio aniztun ebazpenen betearazpenerako prozedura eta jarduera arautzen du eta konfiskazio ebazpenaren onarpenaren eta betearazpenaren ezetzak leku duen kasu ezberdinak, zein berehala igorpen agintaritza judizialak horren gainean, jakinean jarriak izan beharko dira; 20. artikulua betearazpenaren etenaldi zergatiak arautzen ditu; 21. artikulua, beste Estatu batek igorritako ebazpenen onarpen eta betearazpenaren gainean epai bat ematen duen eta era berean Zigor arloko Epaille batek igorritako ebazpenen aurka ezarri ahal izango diren errekurtsoen erregimena barne hartzen du; eta, kapitulu hau itxi nahian, 22. artikulua konfiskatutako ondareen antolamendurako arauak ezartzen ditu.

Aurreproiektuko Xedapen gehigarri bakarrak Botere Judizialaren Kontseilu Orokorrara informazioaren igorpena ezartzen du estatistika helburu batekin, eta honek bere aldetik, era berean Justizia Ministeriora igorri beharko du.

Xedapen iragankor bakarrak, legea indarrean sartu ondoren igorri edo jastozen diren ebazpenei aplikagarri izango dela ezartzen du, nahiz eta ebazpen hauek aurretik emanak izan.



BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU NAGUSIA

Azkenik, azken hiru xedapenek, hurrenez hurren aurrean dugun legezko testuaren agindurako estatuko eskuduntza zehazten dute, hain zuzen ere Konstituzioko 149.1.6 artikuluan kokatzen dena, legeak zuzenbide espainiarrean 2006ko urriak 6ko Kontseiluko 2006/483/JAI Esparru Erabakia barne sartzen duelaren deklarazioa eta indarrean sartu izaneko data.

Osagarria den Lege Organikoko Aurreproiektua bere aldetik, zioen azalpen labur batekin eta artikulatu bakar batekin osatzen da, hain zuzen ere Botere Judizialeko uztailak 1eko 6/1985 Lege Organikoaren 89 bis artikuluari 4. atal berri bat eransten dioena, eta zeinen arabera, “Zigor arloko Epaileei, Europar Batasuneko kide diren beste Estatu batzuetako eskuduntza duten aginteen bitartez igorritako konfiskazio ebazpenen onarpena eta betearazpenaren” ardura ematen zaie “hain zuzen ere konfiskazio ebazpen hauek lurralde espainiarrean beteak izan behar direnean”. Aurreproiektua indarrean sartzeari buruzkoa den azken Xedapen bakar batekin bukatzen da.

Kontseiluak ez du ezer esaterik xedapen sistematiko honen aurka, izan ere tratamendu objektu diren gaiak modu egoki batean antolatzen dituen einean.

2. TERMINOLOGIA

1go artikulua, lege honek helburu bezala *“aginte judicial espainiarrek Europar Batasuneko gainontzeko kide diren Estatu etako agintaritza jakinei, zigor mailako arau hauste baten betepenaren ondorio bezala ezartzen den konfiskazio irmo baten ebazpen bat igortzeko orduan jarraitu behar izango duten prozedura arautzea”*



BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU NAGUSIA

duela ezartzen du.

Manu honek izan ere erabiltzen duen terminologia, eta artikulatuan zehar agertzen diren beste hainbat, gehiegi esanekoak bezala aurkezten dira mota lexiko eta espresio teknika ezberdinen aurrean, hain zuzen ere amankomuna den arauak erabiltzen duena, eta hain zuzen ere nolabaiteko nagitasun edo orokortasun batekin bereizten diren modalitateak, baina ulergarria bestalde amankomuna den erabilera barruan kontuan hartzen bada ezberdinak diren erakunde juridikoak dituen Estatu ezberdinei zuzendurik doala, baina era berean nolabait arraroa suertatzen dena eta esan daiteke gainera ez egokia ere funtsezko antolamendu eta prozesu espainiarraren testuinguru barruan, non zigorrak ezarri ahal dituen ebazpen batek soilik epai itxura hartzea du posible.

Hau dela eta, Kontseiluak momentua edozein izanik ere, organo jurisdikzional espainiarren jarduera prozesalari aipamena egin beharra gomendatzen du, baita bere erabakiei eta baita bere ebazpenei ere, hala nola funtsezkoak edo prozesalak diren erakundeei, non modu ausart batean antolamendu nazionalak esandako edo landutako hitzen erabilera aukeratuko da, hala nola epaileak eta auzitegiak – agintaritza judizialen bitartez – edo epai irmoak – ebazpen irmoen bitartez. Inolaz ere ez da ahaztu behar aurreproiektuaren hartzaileak zigor arloko ordenari dagozkien organo jurisdikzional espainiarrak direla, eta amankomuna den arauaren igorpen egokiena inolaz ere bere proposamenen kopia huts baten bitartez lortu ahal izango dela, baizik eta alderantziz, bere eduki material ezberdinen egokitzapen ahalegin garrantzitsu bat eskatzen duela, lurraldeak berezkoak dituen funtsezko erakunde juridiko eta



BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU NAGUSIA

prozesaletan bere bereganatzea lortzeko helburuaz.

Beraz, azken finean komenigarria da ondorengo arauaren elaborazio biderapen ezberdinetan mota hauetako zehaztapen ezak zaintzea, lege honek dituen manuen beharrezko egokitzapena lortu nahiaz hain zuzen ere Zigor Kodean erabiltzen den lengoaiarekiko, Prozedura Kriminalaren Legeak erabiltzen duen lengoaiarekiko eta Botere Judizialaren Lege Organikoan erabiltzen den lengoaiarekiko, hau hain zuzen ere, kasu bakoitzean aipatzen diren erakunde prozesal, funtsezko eta organikoak definitu, ezaugarritu eta arautzeko helburuaz.

3. EGOZTE BIKOITZEKO PRINTZPIOAREN APLIKAZIO ERREGIMENAREN GAINEAN ETA NE BIS IN IDEN PRINTZPIOAREN GAINEAN

Elkarrenganako onarpen printzipioaren promozioarekiko aurreko zigor arloko gai barruan, elkarlankidetza judizialeko sistema ohiak egozte bikoitzaren printzipioaren hausnarketa eskatzen zuten, hau da, laguntza eskatzen zuten epaiketa zuten egitateak zigor mailako arau hauste bat suposatzea, bai eskaeraren igortzailea den estatuan, baita eskaeraren hartzailea izango litzatekeenaren estatuan, hau, beharrezko baldintza bezala eskatutako elkarlankidetza eman ahal izatea onesteko.

Printzipioaren aplikazio zorrotzak, bestalde, elkarlankidetza prozeduren martxa geldiaraztera laguntzen zuen, azken finean kasu bakoitzean jarreraren izaera tipikoa lurralde hartzailearen barne antolamenduaren ikuspuntutik baloratu izatera behartzen zuen



BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU NAGUSIA

einean, eta kontuan hartuz ondorio bezala, arau hauste bakoitza arau hauste egiten zuten elementuen batera ematea, honek bere aldetik eta batzuetan arazoak sortzen zituelarik eraginduak izandako Estatuaren arauketaren halabeharrezko ezberdintasunaren aurrean.

Elkarrenganako onarpen sistema, hain zuzen ere gaur egun indarrean dauden Esparru Erabakietan islaturik geratu den bezala, egozte bikoitzaren printzipioak sortzen duen mugak gainditzen saiatzen da izan ere lista sistema baten ezarpenaren bitartez, zeinen arabera arau hauste multzo bat finkatzen da zeintzuren aurrean, betearazlea den estatuak ezingo duen kasua edozein izanik ere, inolaz ere tipikotasun falta aurka jarri bere barne legeria barruan onarpen hori ukatzeko zio bezala, eta bestalde bere nahieraren eskuetan utziz ukapen zio horren alegazio aukera espresuki listan barne hartzen ez diren kasuetan.

Sistema honek onarpen prozedura errazten du ebazpenaren hartzaileak diren agintaritza judizialak, barne antolamenduaren ikuspuntutik homologatua izateko beharretik ordezkatzean. Egia esan, behin arau hausteen zerrenda aztertu ondoren, oso zaila dirudi edozein motatako barne antolamendu publikoaren araberrako gairik ere planteatu ahal izatea, zeren eta guzti horiek, giza elkarbizitza barruan oso urratze larriak suposatzen dute, hain zuzen ere EBko edozein Estatu barruan inolako dudarik gabe jazarri daitezkeenak.

Aurrean dugun eta era berean aurreproiektua, bere 13.1 artikuluan jasotzen duen ekimen honetan igorpen objektu den EEak, egozte bikoitzaren erregelaren menpe ez dauden arau hausteen zerrenda zehazten du. Manu berdinak bere aldetik, 2. atalean, *“eskuduntza duen Zigor arloko Epailleak, Europar Batasuneko kide*



BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU NAGUSIA

den beste Estatu batetako aginte judizial baten eskutik ebazpen bat jasotzen duenean eta aurreko atalean aurreikusten ez den zigor mailako arau hauste bat dela eta inposatzen den konfiskazio ebazpen bat betearazteko, horren onarpena eta betearazpena, ebazpen hori emana izan den egitatea Zuzenbide espainiarraren arabera ere arau hauste bat suposatzearen menpe egongo dela” ezartzen du. Kontseiluaren arabera, egokia den arauketa baten gainean ariko ginateke, zeren eta antolamendu espainiarraren barne koherentziak, gure zigor mailako zuzenbidearen ikuspuntutik garrantzia juridikorik ez duten egitateak burutzearen arabera inposatutako zigor haien ukapena gomendatzen du.

Aurreproiektuak *ne bis in idem* printzipioari ematen dioen tratamenduari dagokionez, Kontseiluak egokitzat ematen du zenbait hausnarketa ezberdin egitea.

Informatutako testuak, bere 18.1 a) artikuluan, eskuduntza duen Zigor arloko Epailak konfiskazio ebazpenen onarpena eta betearazpenari uko egingo dioela ezartzen du, hain zuzen ere hurrengo kasu hauetan: *“Espainia barruan edo igorpena eman duen estatutik ezberdina den beste Estatu batean pertsona berdinen aurka eta egitate berdinen gainean ebazpen bat emana izan denean, horren betearazpenak epaitutako gauzaren printzipioa urratuko lukeelako, hain zuzen ere legeetan aurreikusten diren hitzen arabera eta baita ere Espainiak berronetsiak dituen nazioarteko hitzarmen edo itunetan aurreikusten denaren arabera, eta gainera, nahiz eta ondoren, zigortua indultatua izanik ere”.*



BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU NAGUSIA

EBko esparruaren barruan ikusten den eboluzio arauemailea, *ne bis in idem* printzipioan nazioz kanpoko eraginkortasun baten onarpeneruntz bideratua izan da, nahiz eta mugatua den eta murriztuta dagoen modu batean izan, eta hain zuzen ere Schengeneko Hitzarmenaren Aplikazio Itunaren (CAAS) bitartez izan, berau 1990eko ekainak 19 datakoa, eta zeinen edukia amankomuna den ondarean barne sartua geratu da.

CAAS 54 artikuluaekin bat etorriz, *“Alderdi kontratugile baten bitartez epai batean epaitua izan den pertsona bat ezin izango da jazarria izan egitate berdinegatik, nahiz eta beste Alderdi kontratugile baten bitartez egin nahi izan, eta hau, beti ere zigorra ezarri zaion kasuan eta zigor hori betearazia izan denean, zigorrak leku izan duen lekuan Alderdi kontratugilearen legeriaren arabera zigorra iadanik betearazten ari denean edo iadanik ezin daitekeenean betearazi”*.

Nahiz eta CAAS 55 artikulua Estatu izendatzaileei, tasatutako zenbait kasuetan loturarik gabeko zenbait aldarrikapen egitea baimentzen dien, hau egitateak bere lurraldean burutuak izan diren einean, bere funtzionarioek burutu dituzten einean edo Estatuak funtsezko bezala hartzen dituenen interesak eragiten dituzten einean, Schengen arauketa azpian dagoen printzipioa, pertsona berdin baten gainean prozesu edo zigor berdinak ez errepikatzea galaraztea da, hau izan ere EBko Estatu ezberdinetan eta alde zuzenetik gainera horien gainean behin betikoa den zigor mailako ebazpen bat iadanik emana dagoenean.



BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU NAGUSIA

Nazioarteko eraginkortasun honen aurrekari bezala Europako Kontseiluko esparru barruan 1972ko maiatzak 15ean Estrasburgon egindako eta 1988ko azaroak 10ean EAOeko 270. zenbakian – vid. V Titulua, 35etik 37ra arteko artikulua barne hartzen dituen argitaratutako Zigor Arloan Prozedura Igorpenari buruzko Hitzarmen Europarra dugu. Ohizkoa den tresna honetan egozte bikoitz edo aniztuneko debekua justifikagarriaren eskubide bat bezala irudikatzen da, hain zuzen ere alde sinatzaileak zaintzeko konpromezua ematen dutelarik - *“Zigor mailako epai irmo eta betearazle bat eman izan zaion pertsona baten kontra ezin izango zaio jazarpenik egin ezta zigortua izan ere, ezta beste Estatu Sinatzaile batean zigor baten betearazpenaren menpe jarria izan ere”*, hau hain zuzen ere bere 35.1 artikulua araberak.

Beste alde batetik, Europar Batasunaren Oinarritzko Eskubideen Kartak, 1991 urtean Nizako Itunera erantsia, bere 50. artikuluan *“inor zigor mailan arau hauste bat dela eta ezin izango dela salatua izan”* aurreikusten du, *“hain zuzen ere iadanik eta legearekin bat etorritik, zigor mailako epai irmo baten bitartez, Batasunaren barruan, arau hauste hori dela eta absolbitua suertatua izan denean edo bestalde, arau hauste berdinean horregatik zigortua izan denean”*. Egia esan, Karta honek ez du eraginkortasun juridiko zuzenik, baina kasua edozein izanik ere, EBko Estatu kideen arteko harremanetan, *ne bis in idem* printzipioari lotetsia dagoen eraginkortasun onarpenarekiko joera baten eredu argi bat da.

Aurrekari arauemaile hauek kontuan hartuz, eta era berean bai EEJAren bitartez – 2003ko otsailak 11ko Epaiak, C-187/2001 eta C-385/2001 metatutako gaiak, 2004ko martxoak 10eko *Husein Gözütok* eta *Klaus Brügge* kasuak, C-469/2003, *Miraglia* Kasua eta 2006ko



BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU NAGUSIA

martxoak 9ko *Van Esbroeck* kasua, C-436/04 - eta baita AN espainiarraren bitartez – 2000ko urtarrilak 14ko Autoa, 640/1999 zenbakidun Kausa Berezia, abenduak 22ko 380/2003 zenbakidun Epaia- egindako aurrekari arauemaile horien aplikazioa kontuan hartuz ere, Kontseiluak bere aldetik, egokitzat hartzen du aurreproiektuak irmoa, zigortzailea edo absolbitzailea den behin behineko ebazpen baten aurre-existentzia aurreikustea, hain zuzen ere egitate berdinetan eta subjektu berdinari dagokionean, hau hain zuzen ere, igorritako ebazpenaren onarpen eta betearazpenaren ukapen kausa inperatibo bezala eta ez soilik hautazkoa, zeren eta azken finean, aurre-existentzia horrek agerian jartzen du lortu nahi den onarpen horren ebazpena *ne bis in idem* printzipioaren arau hausteaz emana izan dela, zein modu zuzen batean, eraginkorra den babes judizialaren eskubidearekin lotura duen, eta baita ere zigor mailako legaltasun eta proportzionaltasun printzipioekin.

Gainontzekoari dagokionez, orain jasotzen ari garen aurreproiektuak Kontseilu honen eskutik aurreko iradokizun batzuk ere jasotzen ditu, hauek testura erantsiz, beraz, zentzu honetan, inolako eragozpenik jartzea beharrezkoa ez delarik.

4. ZIGOR MAILAKO EPAITEGIEN ESKUETAN JARRITAKO ESKUDUNTZA BERRIAREN GAINEAN ETA BEHARREZKOA ZAION LEGE ORGANIKOAREN LAGUNTZA. FISKALTZAREN ESKU SARTZEA.

Orain informatzen ari garen aurreproiektuak Zigor mailako Epailen eskuetan uzten du EBko beste Estatu batzuetatik igorritako ebazpenak betearazteko eskuduntza. 4.2 artikulua bereziki zera ezartzen du: "*Espainia barruan, igorpen estatuan eskuduntza duten*



BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU NAGUSIA

agintaritza judizialek igorritako konfiskazio ebazpen bat betearazteko eskuduntza duten agintariak, hain zuzen ere ebazpen horretako ondasun objektuak aurkitzen diren lekuko Zigor arloko Epaileak izango dira". Zigor arloko Epaileak betearazpen organoak izateko aukera hau, Epaile hauek berezkoak dituzten eskumen horien esparruarekiko egokitzen da, izan ere BJLOko 87 bis artikulua horrela ezarritakoarekin bat etorritik.

Kasua edozein izanik ere, beharrezkoa da guztiz aurrean dugun aurreproiektu hau lagunduko duen Lege Organikoa garatzea, hain zuzen ere helburua, BJLOaren xedapenetan beharrezkoak diren aldaketak barne sartzea izanik, izan ere organo hauen eskumen objektiboa arautzeaz arduratzen direnak, modu horretan gainera aurreko baliabide amankomunen transposizioekin egin izan ohi den bezala – martxoak 14ko 2/2003 LOa, atxiloketa eta emate europar ordenari buruzko Legea osatzen duena hain zuzen ere eta ekainak 5eko 5/2006 Legea, hau hain zuzen ere, zigor arloko prozeduretan eta Europar Batasunaren barruan, bahiketa ebazpenen eta frogen ziurtapen ebazpenetako eraginkortasun Legearen osagarri bezala.

Prozeduraren arauak egokiaren ikuspuntutik ikusita, Kontseiluak faltan somatzen du proiektatutako arauak ez duela kontuan hartzen eskaeraren lekualdaketa Fiskaltzara, hain zuzen ere honen bitartez erabaki judiziala hartzearekiko alde aurreko izaeraz txostena igorri dezan, kontuan hartuz gure antolamenduak Fiskaltzaren eskuetan uzten duela interes publikoa edo giza interesa eragiten duten ebazpen judizialen konplimendua zaintzeko funtzioa, zeintzuren artean inolako zalantzarik gabe zigorrak inposatzen dituztenak aurkitzen direlarik, eta era berean parte hartze garrantzitsu bat ematen dio nazioarteko laguntza judiziala emateko prozeduretan



BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU NAGUSIA

– 3. artikulua, abenduak 30eko 50/1981 Legeko 9 eta 15. atalak hain zuzen ere eta izan ere bere Estatutu Organikoa arautzen duena-. Fiskaltzaren esku sartzea gainera oraindik nabariagoa da, Estatu igortzailean zigortuak izan diren egitateak gure antolamendu nazionalarekin konparatu ezkerro tipikoak diren edo ez erabaki beharra duten kasu haietan.

Hau da Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak aditzera eman beharreko guztia.

Eta horrela jasota geratu dadin eta eragina izan dezan, aurrean dugun hau luzatu eta sinatzen dut Madrilén, bi mila eta zortzi urteko urriak hamabostean.